

AMETX ERAKUNDE AUTONOMOA:

1909
2009



11. SANTIAGO ONAINDIA Ikerketa Beka

11ª BECA DE INVESTIGACIÓN
SANTIAGO ONAINDIA

2009

Ametx Erakunde Autonomoak, **EUSKAL LITERATURAREN** alorrean **IKERKETA** sustatzeko xedeaz eta Santiago Onaindia idazlearen omenez, haren ikerketa eta sorkuntza lanen jarraipena den bi urterik behineko ikerketa-bekaren 11. ediziorako deialdiari ekin dio.

Beka honek, ondorio guztietarako, izen hau dauka:

> “AMETX ERAKUNDE AUTONOMOA: SANTIAGO ONAINDIA IKERKETA BEKA”

Baldintzak

> Izendagaiak

Banaka nahiz taldean aurkeztutako proiektuak izan daitezke hautagai. Bigarren kasu horretan, proiektuaren zuzendari-arduraduna izendatuko da, taldearen ordezkari izan dadin.

Beka emateko baldintzak bete ezean edo aurreko deialdiaren bati dagokion lana amaiturik entregatu ez bada, eskabide horien arduradunak ez du izango hurrengo beka-deialdietara aurkezterik, egoera argitu bitartean.

> Lanak

Originalak eta lehenago argitaratu gabeak izango dira. Euskal literaturaren alorreko ikerketa-lan hauek euskaraz aurkeztuko dira.

> Iraupena

Lana gauzatzeko epea, gehien jota, urtebetekoa izango da, esleitu eta onartzen denetik zenbatzen hasita.

> Zuzkidura

Bekaren zuzkidura 9000 €-koa izango da. Kopuru horri dagokion PFEZ kenduko zaio.

> Ordainketa

Honela burutuko da ordainketa:

- % 40 beka esleituta, hura onartu ondoren.
- % 30 sei hilabete igarota aurkeztu beharreko txostena aurkeztu eta onartu ondoren.
- % 30 lan osoa aurkeztu eta onartu ondoren.

Ordainketa bakoitzari dagokion PFEZ kenduko zaio.

> Dokumentazioa

Bekarako izena eman nahi dutenek dokumentazio hau bidaliko dute Ametx Erakunde Autonomora (Zelaieta Zentroa. Zelaieta Parkea z/g. 48340 Amorebieta-Etxano):

- a** Bekadun izan nahi duenaren edo, taldea balitz, taldeko ordezkariaren eskaera.
- b** Eskatzailearen edo, taldea balitz, taldeko kide guztien “Curriculum vitae”ak, egindako ikasketak, izandako lanbide-jarduerak, burututako ikerketak, lortutako sariak, argitaratutako lanak, eta abar.
- c** Egingo den lanari buruzko txostena, honakoak azalduz:
 - Lanaren interesa.
 - Luzera edo iraupena.
 - Ikerketa-lanen epeak.
 - Erabiliko den metodologia.
 - Lan-zentroak.
 - Bitartekoak.

Dokumentazioa aurkezteko epea

- > Dokumentazioa aurkezteko epea 2009ko urriaren 16 an, 14:00etan amaituko da.
- > Ametx Erakunde Autonomoaren Erregistroan (Zelaieta Zentroan) aurkeztuko da dokumentazioa, eta bertan emango dira deialdi honen inguruko argibide guztiak.
- > Egun berean postetxean utzitako proiektuak onartuko dira, baldin eta proiektua posta ziurtatuz bidaltzen bada. Horrelakoetan, eskaerak kartazal irekian aurkeztu behar dira, posta-funtzionarioak, ziurtapena egin baino lehen, eskaerei data eta zigilua jar diezazkien.

Bekadunen betebeharrak

- a** Bekadunak idatziz adieraziko du beka onartu duela, beka berari eman zaiola jakinarazten zaionean zenbatzen hasi eta egutegiko 15 egunen epean. Beka jasotzen duenak uko eginez gero, Epaimahaiak, egoki baderitzo, zerrendan hurrengo dagoenari eman ahal izango dio beka.
- b** Beka eman dela jakinarazten denean zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean, lanaren garapenaren egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko du.
- c** Hala lanean nola ikertzaile-taldean aldaketaren bat egin ahal izateko, idatziz jakinarazi beharko zaio aldeztatik Epaimahaiari, eta Epaimahaiak erabakiko du aldaketa onartzen denentz.
- d** Bekaren amaieran lan osoa aurkeztu beharko da idatziz eta euskarri informatikoan.
- e** Ametx Erakunde Autonomoak egoki iritziz gero, bekadunak landutako edukiaren berri emango du jendaurreko ekitaldi batean.

Lanaren jabetza

- > Lanaren jabea egilea izango da. Ametx Erakunde Autonomoak beretzat gordeko du ikerketa-lanaren argitalpen osoa edo zatikakoa egiteko lehenengo eskubidea. Horrela eginez gero, bekadunak uko egingo dio egile-eskubideak jasotzeari.
- > Ametx Erakunde Autonomoak eskubide hau erabili nahi badu, hala paper-formatuan nola euskarri informatikoan, jakinarazi egingo dio egileari, lana behin betiko jasotzen duenean zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean, eta bi urteko epean argitaratu beharko du. Epe hori igarota, egileak askatasuna izango du lana berak argitaratzeko. Horrela eginez gero, jasotako bekaren aipamena egingo du argitalpenean.

Epaimahaia

- > Ametx Erakunde Autonomoaren presidentek izendatuko ditu epaimahaikideak, dagokion jakintza-arloko adituen artean.
- > Dokumentazioa aurkezteko azken egunean zenbatzen hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan jakinaraziko da nori eman zaion beka.
- > Epaimahaiak beka inori ez ematea erabaki dezake, aurkeztutako lanek bere ustez beharrezko baldintzak eta garantiak betetzen ez badituzte.
- > Bekarako proiektuak aurkezten dituzten eskatzaileek, eskatze hutsaz, uko egingo diete Epaimahaiaren ebazpenaren aurka egiteko mota guztietako egintzei.

Gorabeherak

- > Ametx Erakunde Autonomoak ebatziko ditu bekaren tramitazioan gertatzen diren gorabehera guztiak, eta horien ondoren ez da bestelako errekurtsorik izango. Era berean, Beka indarrrik gabe utzi ahal izango du, baldin eta bekadunak adierazi zaizkion betebeharrak betetzen ez baditu.
- > Bekadunak, lanak dirauen bitartean bekari uko egiten badio, eskubide guztiak galduko ditu, eta itzuli egin beharko ditu ordura arte jasotako diru-kopuruak.